

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2026ko apirilaren 28an arratsaldeko zazpiak eta erdi direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2026-03-31KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2026-03-31ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Mikel Otamendi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 1ean, 17/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mikel Otamendiri Juangonea etxean egindako ateen eta leihoen egoera planoak aurkezteko eskatzea ebazpen hau jaso eta hilabeteko epean, obra horien legalizazioari buruz ebazteko.

2.- Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 14an, 18/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2026ko martxoaren 31n egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzeko agindua ematea.

3. Nerea Sotil

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 17an, 19/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko Lakobeikoa 2.eko 1. Pisuko sukaldea eta komuna berritzeko hirigintza baimena ematea.

4. Ainara Goikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 21ean, 20/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko frontoia erabiltzeko baimena ematea apirilaren 25ean eta 26an frontenis txapelketa jokatzeko.

5. Wisco

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2026ko apirilaren 23an, 21/2026 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Wiscoko kanpoko zelaitik datozen euri-ur kutsatuak euri-uren udal-kolektorerara konektatzeko eskaera ez baimentzea ez baitago euri uren sarerik nahi den konexioa onartzeko.

3.- HIRIBILDU TERMALEN SAREAN BAJA EMATEKO AKORDIOA

Ikusita ez dagoela Beteluko termen inguruan inongo proiekturik egiteko asmorik, Beteluko Udaleko alkateak proposatu du FEMPeko hiribildu termalen sarean baja emateko eskaera egitea.

Hau ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du:

Lehenengoa: FEMPeko gobernu batzordeari Hiribildu termalen sarean Beteluko Udala bajan emateko eskaera egitea.

Bigarrena: Akordio hau FEMPi jakinaraztea.

4. BETELUKO GOIKOLAKO BAINUAN KOKATUTAKO AISIALDI GUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari honako hau proposatzen zaio:

Betelun dagoen Araxes ibaiko Goikola atsedeen lekuaren eta bainuen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedienteak jendaurrean izanen da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean

argitaratu eta biharamunetik hasita, auzotarrek eta legezko interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra egin ditzaten.

Arauzko epean erreklamaziorik egiten ez bada, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Alkateak erabakia bozkatera ekarri du, eta udalbatzak aho batez onartu du.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Nafarkoop	F. 71	3.502,95 €
Orona	F. 2604123780	413,03 €
Repsol	F. gasoila	112 €
Lyreco	F. tonerrak	452,79 €
Correos	F. gutun zertifikatuak	6,99 €
Iñaki Eraso Ochotorena	F. farolen konponketak	1.019,43 €
IDM medical	F. 558	133,95 €
Angelines Carrillo	F. A5/2026	90 €
Wikai	F. 1/6040	112,10 €
Iberdrola	F. urberoa	7,63 €
Venus Campos Walsh	F. martxoko garbiketak	2.833,41 €
Goiener	F. eskolako martxoko argia	1.565,16 €
Goiener	F. udaletxeko martxoko argia	1.089,71 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. udaleko erosketak	21,95 €
Ascensores Arga	F. igogailuko 2. Hiruhileko mantenua	203,28 €
Miel Ramon Olano Zabaleta	F. 14/2026	94,38 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	537,82 €
Iberdrola	F. udaleko pisua	10,99 €
Correos	F. gutun zertifikatua	6,99 €
Maite Garcia Satrustegui	F. A1/39	140,44 €
Amazon	F. denetarik (visa)	48,21 €
Amazon	F. denetarik (visa)	6,49 €
Amazon	F. denetarik (visa)	6,49 €
Amazon	F. denetarik (visa)	21,97 €
Amazon	F. denetarik (visa)	38,99 €
Temu	F. denetarik (visa)	20,53 €
Temu	F. denetarik (visa)	13,04 €
Amazon	F. denetarik (visa)	44,95 €
Amazon	F. denetarik (visa)	46,46 €
Baiza motor	F. I26/554	198,82 €
Excavaciones Bartolo	F. 2 red drenaje	16.937,96 €

Suministros Moncayo	F. E26/181	274,43 €
Miel Ramon Olano	F. 15/2026	72,60 €
Miel Ramon Olano	F. 16/2026	81,07 €
Miel Ramon Olano	F. 17/2026	72,60 €
Miel Ramon Olano	F. 18/2026	78,65 €
Hortalizas Etxeberria	F. Idandareak (Nereak ordainduta)	79,81 €
Mart N1	F. lorontziak (Nereak ordainduta)	10,47 €
Rosa Janaridenda	F. auzolaneko hamaiketako (Nerea)	14,65 €
Hortalizas Etxeberria	F. landareak (Nereak ordainduta)	8,50 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1172 martxoa	166 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	368,28 €
Gizarte Zerbitzuak	F. 2026ko kuotaren %50.	7.508 €
Tüv Süd Atisae	F.6466215322	139,15 €
Ofico	F. F261631	152,61 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Sorgintxo martxoa	79,49 €
Maite Garcia Satrustegi	F. A1/38	1.202,50 €
	DENETARA:	40.047,72 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak hamar gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.